# ZALLA SUSTATU 2017

**LABURPENA:** Aurrekontua - **Enpresa-jarduera sustatzeko laguntzak**

Itzuli beharrik gabeko laguntzak / Metatu ezin direnak / Itzul daitezkeenak / Enpresak, saltokiak eta profesionalak, eta autoenplegua. Lan-kontratu mugagabeak edo aldi baterakoak (langabeak). Beti: laguntza < soldata gordina.

## Baldintzak:

- **Kontratatuko diren pertsonak:**
  Zallan erroldatuta egon behar dute 2014/01/01a baino lehenagotik edo beren bizitzaren % 75ean, eta kontratuak iraun bitartean.
  Kontratuaren aurretik hilabetez langabezian egon direla frogatu beharko dute.

- **Ekintzaileak (autoenplegua):**
  Zallan erroldatuta egon behar dute 2014/01/01a baino lehenagotik edo beren bizitzaren % 75ean, eta jardueran alta emanda dauden bitartean.
  EJZn alta eman aurretik hilabetez langabezian egon direla frogatu beharko dute.
  Aurreko urtean, jarduerarik ez talde berean.

## Laguntzaren zenbatekoa:

**A) Urtebeteko edo gehiagoko arduraldi osoko kontratuetarako.**

a) Langabeak, oro har: ***3.000 euro gehienez.***

b) *Urtebetez edo gehiagoz langabezian egon diren eta 45 urtetik gora duten langabeak eta 30 urtetik beherakoak (praktika- eta prestakuntza-kontratuak salbu):* ***3.500 euro gehienez.***

c) *30 urtetik beherako langabeak, unibertsitateko edo LHko goi mailako tituluak dituztenak, haien titulazioarekin bat datozen kontratu arruntak egiteko:* ***4.000 euro gehienez.***

Horri hau **gehituko zaio:**

% 20 kontratu mugagabeetan eta 2 urtetik gorakoetan.
% 20 egoitza soziala edo lantokia Zallan duten kontratatzaileentzat.

Horrez gain, **murrizketa proportzional** hauek egingo dira:

Urtebetetik beherako kontratuak (6 hilabete edo gehiago)
Arduraldi partzialekoak (% 50 edo gehiago)

***Enpresa bakoitzak gehienez diruz lagun ditzakeen kontratuak: 6***
***Negozio/enplegatzaile bakoitzeko gehienez eman daitekeen diru-laguntza: 5.600 euro***

**B) Norbere kasako lanpostu berria sortzea.**

**Laguntza: autonomoen 12 kuota minimoren ordainketa** (Gizarte Segurantzan alta emanda)

*Laburpena. Zalla Sustatuz proiektuaren 2017ko deialdiaren oinarrien 9. puntua:*

## 9. NAHITAEZ AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK:

**9.1. Nahitaez aurkeztu behar diren agiriak:** Eskaera aurkezteko unean eman behar direnak (azken eguna: 2017/12/31).

**Eskabide-eredu normalizatua.**

- **Enpresaren datu orokorrak** (ordezkariaren NANa, IFK, botereak, eraketa-eskriturak eta horietan egindako aldaketak, lan-bizitza)
- **Diruz lagunduko diren lan-kontratuak** (erregistro zk. eman beharko zaie)
- **Zinpeko adierazpena** (oinarriak ezagutzea, prozeduretan sartuta ez egotea eta zehapenik ez izatea, beste laguntzarik ez jasotzea eta Minimis betetzea...)

**9.2. Justifikatzeko agiriak.** **Epea:** hilabete, lan-kontratua bukatu zenetik, eta gehienez ere urtebete.

- **Besteren konturako langilea**

1. Kontratatutako langilearen NANaren kopia
2. Ohol-ahaidetasunik ez dagoela esaten duen zinpeko adierazpena
3. Lan-kontratuen kopia
4. Langileari Gizarte Segurantzan alta eman zaiola adierazten duen kopia
5. Kontratatutako langilearen lan-bizitza (aurretik langabezian zegoela frogatzeko)
6. Soldatak ordaindu izanaren bankuko ziurtagiria
7. Nominen kopia
8. Enpresa kontratatzailearen lan-bizitza

- **Norbere konturako langilea (autonomoa):**

1. NANaren kopia
2. EJZko alten eta bajen ziurtagiria

- **Bi langile motei aplikatu beharreko xedapenak**

1. Eskabide-eredu normalizatua
2. Hirugarrenen alta
3. Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen agiria